

www.noaia.com Noaia !!



Xabier Letek liburu berria
aurkeztuko du Sutegin

Maiatzak 21

krisiak eragindako greba eguna



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta imprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

Erraustegian sortuko diren sustantziek ze ondorio dakartzate?

"... Gorputzeko ehun bigunetan minbizia edo sarkomak garatzeko arriskua 31,4 aldiz handiagoa da erraustegi bateko 2 Km eremuan."

Iturria: Medikuen Institutoa, Mantua, Italia. 2003ko iraila

Osasun-tekniko batzordea



PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATEA
BIZITZECO
PREST!

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE-MONDRAGÓN AULA MAGNA

MAIATZAK 21 - 17:30 osteguna **2. zikloa**

Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

IRUN AULA MAGNA

MAIATZAK 21 - 18:00 osteguna

Tel.: 943 63 91 29 // loiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

izena emateko epea zabalik

ekainaren 19ra arte

www.mondragon.edu/prest

Albistea iruditan !!

Atez ateko zabor bilketa mintzagai Institutuan

Pasa den astean, Usurbilen martxan jarri den atez ateko zabor bilketa izan zen mintzagai Lasarte-Usurbil Institutuan. Lehen Batxillerreko hiru ikaslek, Jon Aizpuruak, Unai Imazek eta Jokin Irastorzak, ikastetxeko ikaskideen aurrean Usurbilen martxan jarritako zabor bilketa berria azaldu zuten, beraiek egindako lan baten bidez. Sistemaren ezaugarriak azaltzeaz gain, atez atekoaz eta errausketaz aritu ziren hizketan.

Industria Teknologikoaren ikasgelan prestatutako lan bat izan da, hiru ikasleek Patxi Azpirotz irakaslearen zuzendaritzapean osatu dutena.



JON AIZPURUAK, UNAI IMAZEK ETA JOKIN IRASTORZAK EGIN DUTE LANA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpuru, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatoria: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpuru, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpuru, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpuru.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

AUTOBUS ZERBITZU BERRIAK MARTXAN **6. OR.**

SANTIXABEL BERTSO-PAPER LEHIAKETA **8. OR.**

KRISIARI BURUZKO ERREPORTAJEA **10. OR.**

PALETA GOMA TXAPELKETA, MARTXAN **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.ESK 943372937 • 659602789

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 • ASTEASU
943 69 68 52 • 620 800 186



LUIS ARANALDE

Aitzindari

Bai, lehengo asteazkenean ospakizun berezi batean parte hartu nuen organo jole bezala Donostiako Gotzain Eliza edo Katedralean: Jose Maria Arizmendiarraren Elizbarrutiko kanonizazio-prozesuaren amaieran, hain zuzen. Katedrala jendez josita, batez ere arrasatearrez, bertan lan egin baitzuen urte askoz Arizmendiarreta apaizak.

Hil eta 30 urtera, 2006. urtean, bere kanonizazio-prozesua bideratzeko elizbarrutiko epea ireki zuen Donostiako Gotzaina Joan Mari Uriartek. Asteazkenean amaitu zen prozesu hau. Testigutza eta dokumentazioekin 2.500 orrialdeko txostena prestatu zuten urte hauetan zehar eta Gotzainak itxi zuen asteazkenean. Txosten hau Erromara bidaliko dute aurki kanonizazio-prozesu horri jarraipena eman diezaioten. Beste dozenaka urte iraun dezake lan horrek.

Gure gazte gehienek ez dute jakingo, agian, zein izan zen eta ze lan bikainak burutu zituen gure barinagatar (Markina) ospetsu honek. Hona hemen bere biografiaren datu nagusienak:

Jose Maria Arizmendiarrera apaiza hitz gutxitan esanda, gure herrian eta haratago izugarriko zabalkundea izan duen Mondragon Kooperatiba Taldearen sortzailea izan zen. 1915ean jaio zen Barinagan (Markinako auzoa). Apaiztu eta berehala, 1941ean Arrasateko Parrokiako apaiz laguntzaile izendatu zuen Gotzainak. Hasiara-hasieratik sentiberatasun handia agertu zuen arazo sozialetarako eta aparteko hurbiltasuna kristau-pentsamendu sozialeko arazoetarako.

Lan arloan Elizaren Dotrina Sozialaren printzipioak eta irizpideak txertatzea izan zen "bere irrika nagusia" bizitza osoan. Alde batetik, hitzaldiak egiten zituen, mezak eman, gaixoak bisitatu, aitortzak entzun, gazteei arreta berezia eskaini... Eta aldi berean beste zerbait sortu nahian zebilen: Arrasateko herrian hainbesteko beharrak zeuden gerra zibilaren ondoren, halako miseria... Urte zail haietan gizarte zerbitzuak sortzeko beharra ikusten zuen. Eta lan horri ekin zion buru-belarri.

Lanbide Eskola zabaldu zuen, gaur egungo Mondragon Unibertsitatearen ernamuina. Lankide talde baten kristau fedea eta konpromisoa moldatzen jardun zuen eta haien laguntzari esker 103 etxebizitza berrien eraikuntza bultzatu zuen. Sortzen

ari ziren enpresen finantza premiei diruz lagundu ahal izateko Euskadiko Kutxa edo *Caja Laborala* eratu zuen, kooperatiba izaera zainduz. Eta azkenik, Arrasateko Ospitalea eraiki zuen. Hantxe hil zen 1976an, 61 urte zituela. Atipikoa edo ezohikoa izanik, "gutziz gaurkoa dugu Ebanjelio-senez betetako gizon hau", esan zuen Joan Mari Uriartek aipaturiko ospakizun horretan.

Bere bertuteak azpimarratzerakoan honako hauek aipatzen dituzte: aitzindari izan zela, sormen handiko gizona eta besteei guztiz emana, gizarte berri bat amestu zuena eta herriarekin bat eginda bizi izan zena. Bere lema izan zen: "ikasi eta lan egin". Ebanjelioko baloretan inspiratu zen eta batzuen eta besteen esperientzia bateratzen saiatu zen, elkarlana bultzatuz.

Kanonizazioaz zertxobait esanez amaitu nahi nuke. Hitz honekin zera esan nahi da: ekintza honen bidez norbait santu izendatzen du Aita Santuak, hau da, sinestedun guztien eredu eta mundu guztiaren kultura hartzeko gai. Horretarako, eredu-ko bizitza eramateaz at, "mirari" pare bat egin behar ditu.

Lau etapa daude kanonizazio prozesu honetan: Jainkoaren "mirabe" izendatzen du lehenbizi, bigarrenez "agurgarri", hirugarrenez "beato" eta azkenik "santu". Santu deklaratu arte denbora asko edo gutxi pasa daiteke; batzuk mendeak igaro ondoren izendatuak izan dira; Paduako S. Antonio, aldiz, urte bete eskas igarota izendatu zuten santu.

Lehen kanonizazio prozesuak X. mendearen amaieran hasi ziren. Hasiara batean aho batez herriak izendatzen zituen santu, "vox populi" deritzana.

Oraindik ere "mirari gura" agertzen jarraitzen du Vatikanoko. Hori baino anakronismo handiagorik ez dakit ba ote dagoen. Niretzat benetako miraria zera da: miseria bizi zen herri hartan (Mondragon) lanpostuak sortzea, ikasteko gogoia zabaltzea, elkarlana bultzatzea, egoera ilun hartan esperantza piztea, kapitalismo basatia aldatzea eta solidaritatea lantzea, Ebanjelioaren funtsezko baloretan oinarritu eta mundu berri bat sortzea. Ez zen "supermana" izan gure Arizmendiarrera; bere akatsak ere bazituen; baina, ongia nagusitu zen bere bizitzan eta faro bat izan zen borondate oneko pertsona orentzat.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !

Manuel Goenaga oroitzuz

Gure Manuelek, 1936ko gerra "ez-zibilean" parte hartu zuen, Santoñan preso hartu eta Santander eta Mirandan preso zazpi urte igaro zituen.

Historiako pasarte honetan parte hartu zutenetik azkeneko usurbildarra joan zaigu.

Denok berdinak garelako esaten digute, denok noizbait hil behar dugula.

Baina, berak kontatutako bizipen abertzaleak ez ditugu sekula ahaztuko. Goian bego! Agur eta ohore!

Manu Aranburu

Mikel Laboari omenaldia egingo zaio maiatzaren 31n

Aurrerantzean, frontoi atzeko plazak Mikel Laboaren izena eramango du. Maiatzaren 31n egingo zaion omenaldian, gainera, plaka bat jarriko da oroigarri moduan. Txalapartariak, kantariak eta musikariak hartuko dute parte Donostiako kantariaren omenez prestatzen ari diren ekitaldian.

Aurreko astean Kultura Aholku Batzordea bildu zen udaletxean. Alkatzaren ekimenez, Mikel Laboa omentzeko proposamena aztertu zen. Ekitaldia aurrera eramateko hainbat egitasmo azaldu ziren eta batzarrak begi onez ikusi zuen proposamena. Mikel Laboaren senideek ere hartuko



MIKEL LABOAK HARREMAN ESTUA ZUEN USURBILGO HERRIAREKIN.

dute parte omenaldian. Xehetasun gehiago, hala ere, datorren asteko NOAUA'n emango ditugu.

Aipatzekoa da Jexux Artze Kultur Elkarteak oroigarri bat eman ziela Mikel Laboa eta Jean Paul Harreguyren senideei, aurreko larunbatean Oreka Tx-en kontzertuan.

Dirulaguntzen kudeaketa beste modu batean egingo da

Hala erabaki zen maiatzaren 6an egin zen Kultur Aholku Batzordean. Apirileko batzarrean aipatu zen dirulaguntza zuritzerakoan, zenbaitetan, ekintza batzuetan dirua sobera gertzen zela eta beste batzuetan, berriz, dirua faltan. Aholku Batzordearen eskariz, Udalak egokia ikusi du hurrengo urteko deialdian aldaketa hau egitea:

“Dirulaguntza ekintzaka zuritu-ko da. Ekintza guztien likidazioa egiten denean ekintza baterako izendatutako dirua bueltatzea egokitzen bada eta, alderantziz, beste ekintza batean aurreikusitakoa baino gehiago gastatu bada, Udalarari itzuli beharreko diru hori posible izango da diru-faltan gertatutako beste ekintza horretara bideratzea. Nolanahi ere, ekintza bati ematen zaion diru-kopuruak ezingo du inoiz izan hasiera batean izendatutako proportzioa baino altuagoa”.

2010ean jarriko da neurri berria martxan

Kultura Aholku Batzordeko kideek egokia ikusi dute proposamena eta, honenbestez, 2010eko dirulaguntza-deialdian txertatzea erabaki da.

Turismoa sustatzeko proposamena

Beste proposamenen artean, Juan Luis Atxegak turismo alorreko eskuorri baten premia aipatu zuen Kultura Aholku Batzordean. Usurbilen zer erakutsi handia dagoela iruditzen zaio eta ez dela behar beste ezagutarazten.

Hurrengo bilera, irailean

Hurrengo bilera irailaren 30ean izango da, arratsaldeko 18:30ean.

Udal langileen lan hitzarmena adostu da

Udal langileen lan baldintzak zehazten dituen hitzarmena onartu zuen Udalak, azken ohiko osoko bilkuran. 2010 urtera arte indarrean egongo da eta modu honetan, udal langileen ordezkaritza eta sindikatuen eskarrietatik abenduan abiatu eta bi hilabete iraun duen negoziazio prozesuari amaiera eman zaio.

“Uste dugu, lan hitzarmen txukun bat dela bi aldeentzat”, adierazi zuen Xabier Mikel Errekondo alkateak. Negoziazio prozesuaren abiapuntua zein izan zen ere gogora ekarri zuen; udal langileen ordezkaritza eta sindikatuen eskariak hain zuzen.

EAJ-PNV eta EAko udal ordezkariek abstentziora jo zuten, euren esanetan, hitzarmenean aipatzen diren pribatizazio eta azpi kontratazioari zegozkion puntuak argi ikusten ez zituztelako. Gobernu taldearekin batera bestalde, PSE-EE eta Aralarreko udal ordezkariek akordioa babestu zuten.

Gizon dema, San Ixidro egunean

Baserritarren egunean gizon proba egingo da Dema plazan. Eguerdian parte hartu izango da. Ospakizunak, ordea, Meza Nagusiarekin hasiko dira. Ondoren hamaiketako banatuko da eta kirol jokoak hasiko dira. Pilota partidak frontoian eta gizon dema, Dema plazan. Bazkaria Saizar sagardotegian egingo da baina norberak berea ordaindu beharko du.

MAIATZAK 15 OSTIRALA SAN IXIDRO EGUNA

11:00etan Meza Nagusia.

Meza ondoren, hamaiketako plazan Andatzpe elkarteak antolatuta.

Ondoren pilota partida frontoian eta gizon dema, Dema plazan.

14:00etan nahi duenarentzat Bazkaria Saizar sagardotegian (bazkaria ordaintzea norberaren kontura).

Astigarraga-Usurbil, Buruntzaldea lotuko duen autobus zerbitzu berria

Aurrerantzean, autobus linea berri batek zuzenean lotuko ditu Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbilgo herriak. Aspaldiko gabezia betetzera datorren zerbitzua da hau. Oraingoan, urtebetez egongo da indarrean. Beste bus zerbitzu berri bat ere aurreikusi du Foru Aldundiak: Urnieta-Lasarte-Zubietako Herri Batzarraren aspaldiko eskakizuna betetzera etorriko den foru erabakia.

Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbil arteko zerbitzu berri hori urtebetez eskainiko da, froga gisa. Foru Aldundiak 408.707 euroko inbertsioa egingo du. Urtebeteko epean, Buruntzaldeko biztanleek linea berriari emandako harrera eta erabilera neurtu ahal izango dira.

Ibilbidea

Astigarraga eta Usurbil arteko 17 km distantzia, era honetan osatuko du zerbitzu berriak.

Astigarraga-Usurbil: Astigarraga (erdigunea)-Ergobia-Akarregi-Hernani(Zinkoenea)-Anziola-Galarreta-Errekalde-Lasarte-Oriako errotonda nagusia-Belartzako errotonda-Urbil-Txikiardi-Usurbil.

Usurbil-Astigarraga artekoa, era honetan: Usurbil-Txikiardi-Urbil-Belartzako errotonda-Lasarte-Oriako errotonda nagusia- Errekalde-



408.707 EUROKO INBERTSIOA EGINGO DU FORU ALDUNDIAK.

Galarreta-Sorgintxulo-Hernani (Zinkoenea)-Akarregi-Astigarraga.

Geltoki hauetatik pasako da

Herrietan ondorengo geltoki hauek aurreikusi dira: Astigarragan, erdigunean eta Ergobian. Hernanik hiru geltoki izango ditu, Akarregi, Zinkoenea eta Sorgintxulo; Lasarte-Orian, Kale Nagusian eta Sasoetan; eta Usurbilen, Urbil merkatal zentron, kaxkoan (guztiz zehaztu gabe oraindik) eta Atxegalden.

Txartela, 1.30 euro

Txartel arruntak 1,30 euro balioko du. Txartel bakarreko erabiltzaileek, berriz, 0,69 euro ordainduko dute; horiek ohiko %40eko deskontua izango dute lehen bidaiatik hasita eta metatu egingo da (Lurraldebuseko sistema eragileko gainerakoetan bezala).

Astigarraga-Hernani-Lasarte Oria-Usurbil autobusa			
Asteleheneretik ostiralera		Igande-jaiegunetan	
Irteera Astigarraga	Irteera Usurbil	Irteera Astigarraga	Irteera Usurbil
07:00	07:15		
07:30	07:45		
08:00	08:15		
08:30	08:45		
09:00	09:15		
09:30	10:15		
10:30	11:15		
11:30	12:15		
12:30	12:45		
13:00	13:15		
13:30	13:45		
14:00	14:15		
14:30	14:45		
15:00	15:15	15:00	15:15
15:30	16:15	16:00	16:15
16:30	17:15	17:00	17:15
17:30	18:15	18:00	18:15
18:30	18:45		
19:00	19:15	19:00	19:15
19:30	19:45		
20:00	20:15	20:00	20:15
20:30	20:45		
21:00	21:15	21:00	21:15
21:30	21:45		
22:00	22:15	22:00	22:15

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plateer konbinatuak

TABERNA

LATAILLADE ITURGINTZA

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, beheak · 943 363 348 · 609 888 021

Maiatzaren 15etik aurrera, Lasarte, Zubieta eta Usurbil arteko autobusa ere martxan

Astigarraga eta Usurbil lotuko dituen autobus zerbitzua ez da martxan jarri den bakarra izan. Zerbitzu honekin batera, beste bus linea bat abiarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ondorengo ibilbidea osatuko du: Urnieta-Lasarte-Zubieta-Santuenea-Usurbil lotzen dituen autobusa.

Ostiral honetan, maiatzak 15, sartuko da indarrean zerbitzu berria. Usurbilen, Bordatxo parean geratuko da autobusa. Zerbitzua TSST enpresak eskainiko du (www.tsst.info, 943 361 741). Azpian dituzue ordutegiak. Larunbat eta igandeetan, aldiz, orain arteko ordutegia izango du Zubietara hurbiltzen den autobusak.



TSST AUTOBUS KONPAINIAK OSATUKO DU FORU ALDUNDIAK MARTXAN JARRI DUEN LINEA BERRIA.

Ordutegi aldaketa, Zumaiarako tren ordutegian

Maiatzaren 6tik, EuskoTrenek bi minututan aurreratu du Usurbildik Oriora doan tren zerbitzua. Ordu aldaketa soilik Zumaiarako norabidean da. Orain arteko frekuentzia bera izango du, Donostiatik ordu berdinean aterako dira trenak. Baina Usurbil eta Orioko geltokietatik bi minutu lehenago abiatuko dira Zumaiarako trenak.

Aurkako noranzkoan, Donostiarantz, indarrean zeuden orduetan ateratzen jarraituko dute trenak. Aldaketa horren arrazoia EuskoTrenek Aia/Orión eraikiko duen trenbide saihebidetaren berriaren lanak.



ALDAKETAK USURBIL ETA ORIOKO GELDIALDIEI ERAGITEN DIE, ETA ZUMAIARAKO NORABIDEAN BAKARRIK.

Urnieta-Lasarte-Zubieta-Usurbil

Urnieta → Usurbil Astelehenetik ostiralera

Urnieta	Lasarte	Zubieta	Santuenea	Usurbil
	07:00	07:05	07:10	07:15
07:45	08:00	08:05	08:10	08:15
	09:00	09:05	09:10	09:15
09:45	10:00			
	12:15	12:20	12:25	12:30
13:00	13:15	13:20	13:25	13:30
	14:15	14:20	14:25	14:30
15:00	15:15			
	18:15	18:20	18:25	18:30
19:00	19:15	19:20	19:25	19:30
	20:15	20:20	20:25	20:30
21:00	21:15			

Usurbil → Urnieta Astelehenetik ostiralera

Usurbil	Santuenea	Zubieta	Lasarte	Urnieta
07:15	07:20	07:25	07:30	07:45
08:15	08:20	08:25	08:30	
09:15	09:20	09:25	09:30	09:45
12:30	12:35	12:40	12:45	13:00
13:30	13:35	13:40	13:45	
14:30	14:35	14:40	14:45	15:00
18:30	18:35	18:40	18:45	19:00
19:30	19:35	19:40	19:45	
20:30	20:35	20:40	20:45	21:00

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Otar-Goxo
Elituguiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Santixabeletako Bertsopaper Lehiaketa ere, martxan

Santixabeletarako gero eta gutxiago falta da. Baina oraindik bada paper mutur batean bertso batzuk idazteko denbora. Bota Punttubak, behintzat, egina du Bertsopaper Lehiaketarako deialdia. Uztailaren 1ean amaituko da partehartzeko aukera.

Hauiek dira Santixabeletako Bertsopaper Lehiaketara aurkeztzen denak bete behar dituen baldintzak.

- Usurbildarra izatea.
- Gai librean idaztea.
- Lanak, uztailaren 1a baino lehen, Udaletxera eman edo postaz bidali: XXXI. Bertsopaper Lehiaketa, Joxe Martin Sagardia Enparantza, 20170 Usurbil.

- Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute.

- Sariak: lehenak, 200 euro eta txapela. Bigarrenak, 150 euro. Hirugarrenak, 100 euro.



GAZTE EKIMENAREN DEIALDIA. GOITIBEHERA SAIOA ANTOLATZEKO ASMOA DUTE. JAITSIERAN PARTE HARTZERA GONBIDATU NAHI DITUZTE HERRITARRAK. AURRERAGO AZALDUKO DUTE ZEIN EGUNETAN EGINGO DEN JAITSIERA.

- Aurkeztutako lanek behar duten kalitaterik ez badute, sariak eman gabe utz daitezke.

- Lanek gutxienez 8 bertso beharko dituzte eta gehienez 10 bertso.

- Lanak egilea nor den adieraz deza-

keen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak ipini.

-Erabakia jaietako bertso saioan emango da aditzera.

Egitarauaren diseinua, lehiaketa bidez

Lehiaketa honetara norbanakoak zein taldeak aurkez daitezke. Taldean aurkeztuz gero, taldekide bat izendatuko da lanaren arduradun. Nahi adina lan aurkez daitezke.

Egitarauaren diseinua egiteko, egitarauaren testua Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria Zerbitzuan jaso behar da.

Lanaren neurria librean izango da.

Erabakia hartzeko orduan, garrantzi handia emango zaio, besteak beste, egitaraua erraz irakurtzeko modukoa izateari.

Maiatzaren 29a baino lehenago aurkeztu behar da diseinu-proposamena. Saria 500 eurokoa da.

Epaimahaia Santixabeletako Jai Batzordeak berak osatuko du.

Danborradak hasi dira entseatzin

Aurten bost urteko umeak aurrean joango dira eta sei urtetik aurrerakoak, jotzen. Antza denez, desfilatzeko garaian nahiz eta danbor txikienak eraman, ez dira gustura ibiltzen. **Umeen danborrada uztailaren 2an izango da** eguerdiko 12:00etatik aurrera. Pasa den astean hasi ziren entseatzin.

Iaz bezala, **helduen danborrada** jai bezperan ibiliko da, **uztailaren 1ean asteazkena.** Arratsaldeko 19:00etatik 21:00ak arte lehen saioa egingo dute. Eta gaueko 00:00etan bigarren saioa, txupinazoarekin batera. Helduen lehen entsegua ere, aurreko astean egin zen.

Informazio gehiago, 943 37 19 99 telefono zenbakian.

Maiatzaren 22an, sagardo dastaketa

Maiatzaren 22n ostirala, sagardo dastaketa antolatu dute Sagardo Eguneko antolatzaileek. Mikel Garaizabal enologoaren eskutik, 20:00etik aurrera Artzabalen. Jarraian, afaria egingo da leku berean.

Honako menua dastatu ahal izango da: ahate "mousse"-a, onddo nahasia, legatza saltsa berdean, saiheskia patata eta piperrekin, postreen dastaketa. Edaria eta kafea. Guztia, 25 euroren truke.

Txartelak Artzabalen daude salgai

Txartelak jada salgai daude Artzabalen bertan, baina aldeztu aurretik erosi behar dira. Maiatzaren 19a, azken eguna.

LURRALDEBUSeko istorioak

LURRALDEBUS

José Juan, 19 urte

"Opostariak egitezik datoc
Ez du gure onan lurik egin
eta orain lamero joser
belaia du."

Jatorria: Lasarte-Oria
Norakoa: Donostia Amara

Angel, 57 urte

"Bilera batera don.
Jose Juanen arimakoa den
eta bati festarik festa
dabilen seme bat du."

Jatorria: Tolosa
Norakoa: Donostia Amara

www.lurraldebusekoistorioak.com



GIPUZKOA
zurekin, aurrera

Greba deialdia, egoera ekonomikoaren ondorioa

Kaleratutako langileei elkar-tasuna adieraztea edo lanpostuen suntsiketa salatzea. Beste askoren artean, aipatu bi arrazoiek Euskal Herriko sei sindikatu datorren maiatzaren 21ean greba orokor eguna deitzera bultzatu dituzte. Artean, azken aldiko joera apur bat baretu dela dirudien arren, gurean duela hamar hilabetetik langabeziak gorantz jarraitzen du etenik gabe. Eta etenik gabe baita, lantokietan langileen aurka hartzen ari diren neurriek ere.

Hamargarren hilabetez jarraian, langabeziak gora egin du Hego Euskal Herrian. INEM-ek kaleratutako datuen arabera, 160.570 langabetu zeuden apirilean, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan.

LANGABEZIAK GORA

“Krisiak gehien zigortu dituenak gazteak izan dira, adin tarte horretan %90 igo da langabezia”

Aurreko hilabeteko zifrekin alderatuta, igoera apur bat baretu dela esan liteke, %0,7-an gehitu baita langabezia-tasa. Aldiz, duela urtebeteko egoeraren pare jarrita, igoera ezin nabar-menagoa da. Hain zuzen, 2008an egun baino 55.897 langabetu gutxia-



ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE ETA HIRU SINDIKATUEK EGIN DUTE MAIATZAREN 21 EKO GREBA DEIALDIA.

go (-%53,4) zeuden eta.

Herraldeka azken urtean, langabeziak gehien kolpatutako lurraldea Nafarroa izan da. Sexuari dagokionez, gizonezkoak %85ean igo baita langabetuen kopurua, emakumezkoen artean %31,2. Eta adin tarteari dagokionez krisiak gehien zigortu dituenak gazteak izan dira, %90an gehitu baita adin tarte horretan lanik gabe geratu direnak.

**Lanpostua galdu gabe,
baina...**

Horiek guztiak lanik gabe geratutakoak. Baina aldi berean, milaka dira aldi baterako euren lanpostuetatik bota

dituztenak edota lan ordu edo egun murrizketak jasandakoak. Bi datu kezagarri ere plazaratu dira; hiru etxebizitzetatik batean inor ez da ari lanean eta langabetuen erdiak ez du laguntzarik kobratzen. Europa mailako bataz bestekoa bikoizten dugu, aldi baterako lan egiteari dagokionean.

EREak bikoiztu egin dira

2008an zehar onartu diren erregulazio espediente kopuruak 2007koa ia bikoiztu egiten du. Duela urtebete, Gipuzkoan guztira 206 espediente bideratu ziren, 4.504 langileri eraginez. Pasa den martxoan 89, 2.771 behargin kaltetuz.

Krisiaren eragina Gipuzkoako lan-kontratuetan

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Etendura , lan-kontratuaren suspentsioa aldi baterako	3.122	669	3.791
Murrizketa , lan-kontratuko orduen murrizketa	29	18	47
Hausketa , lan-kontratuaren amaiera, behin betiko	477	189	666

2008ko behin behineko datu metatuak. Iturria: Lan eta Gizarte-Segurantzaren zuzendaritza.

Krisiak

gogor jo du inguruko lantegietan

Gertura etorrita, 2008an zehar hainbat neurri hartu zituzten Usurbilgo zenbait enpresek. Horien artean honakoak, adibide moduan.

-Luzuriaga-Fagor-Ederlan: 363 langilerekin, erregulazio espedienteak 283 behargin kaltetu ditu. Aldi baterako lanean zebiltzan 19 lagun kalera-tu dituzte. Martxoan, 230 langileei etendura aplikatu zaie.

-Savasa: ekoizpen etenaldia burutu zen, iazko azaroaren 24-29 artean.

-Akaba (Lasarte-Oria): 63 langile ditu. Abenduko eta uztaileko aparteko soldatak ez dituzte kobratuko. Soldatetan %5eko jaitsiera aplikatuko zaie. Aldi baterako langileak kalean daude.



INGURUKO ENPRESETAN ERE NABARMEN IGARRI DIRA KRISIAREN ONDORIOAK. ERREGULAZIO ESPEDIENTEAK ZABALDU DIRA, EKOIZPENA ETEN, ALDI BATERAKO LAN KONTRATUAK ETEN...

-Michelin (Lasarte-Oria): nagusiekin adostasunera iritsi dira, langileek

lan egunak zorretan utziz. Bost urteetan itzultzea eskatuko zaie langileei.

Hernanin egingo da eskualdeko manifestazioa

Arazoi ugari aipatu dituzte, AELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, Hiru eta EHNE sindikatuek datorren maiatzaren 21erako greba eguna deitzeko. Eguerdian herrialdeetako hiriburuetan manifestazioak egingo dira eta arratsaldean, eskualdeburuetan.

Lanpostuen suntsiketa eta lan esku-bideen urraketak salatu, langile kalera-tuei elkartasuna adierazi, patronal zein administrazioen xantaiari uko egin, krisialdia langileek ordainduko ez dutela ozen aldarrikatu, eredu berri baten beharra azpimarratu, botere publikoen politikak aldatzea eskatu, burujabetzarako aukera eta bitartekoen beharra galdegin...



EGUERDIAN DONOSTIAN ETA ARRATSALDEAN HERNANIN ELKARTUKO DIRA GREBALARIAK.

Manifestazioa Hernanin

Herrialde mailako manifestazioa eguerdiko 12:00etan egingo da, Donostiako bulebarretik abiatuta. Eskualde mailako manifestazioa Hernanin egingo da. Arratsaldeko 18:00etan abiatuko da langileen manifestazioa, udaletxe aurretik.

Langabetu kopurua igo egin da Usurbilen

2007ko laugarren hiruhilekoan, 170 ziren langabezia zeuden usurbildarrak. 2008ko laugarren hiruhilekoan, aldiz, 225. Urtebeteko epean, %32,35eko igotera eman da. Datuok lanbide.net web orrian daude ikusgai.

Lan-kontratuen kopuruan ere beherakada nabarmena izan da:

2006an 3.243 lan-kontratu zeuden Usurbilen. 2007an, 3.164. 2008an, 2.943. Beheranzko joera eman da, beraz, azken hiru urteotan.

%10eko langabezia-tasa

INEMen arabera, 2009ko martxoaren 31n 275 langabetu zeuden Usurbilen. %10eko langabezia-tasa suposatzen du kopuru horrek.

aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz pasatzeko aukera

udajolas

udaleku irekiak

4-12 urte (HH4-LH6) bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago.

Uztailaren 6tik 29ra

Ordutegia: 09:30-13:30

Gehienezko plaza kopurua 95 umekoa izango da. Lehendabizi inskribatzen diren 95ak onartuko dira, ez gehiago.

Izen emateko epea: **maiatzaren 20tik 29ra** (biak barne), astelehenetik ostiralera 17:00etatik 19:00etara, Noaua!n.

Izen ematerakoan, ordainagiriaren kopia eta izen emateko orria ekarri behar dira.

Lekua: Noauaren egoitzan.

Kuota: 72€

Famili ugaria: 60€

Ordainketa EUSKADIKO KUTXAko kontu honetan egin eta bertan haurraren izen-abizenak adierazi:
3035 0140 34 1400025811



“Egunsentiaren esku izoztuak”

Xabier Letek bere azken liburuko poemak irakurriko ditu Sutegin

Xabier Letek eta Joxan Goikoetxeak poesia eta musika emanaldia eskainiko dute ostiral honetan Sutegin. Iaz kale-ratu zuen “Egunsentiaren esku izoztuak” (Pamiela, 2008) liburuko poemak errezitatuko ditu Xabier Letek eta Joxan Goikoetxeak musikaz lagunduko dio. Sarrera gonbidapen bidez lortu behar da Lizardi dendan, baina gehienez bi sarrera pertsonako.

60ko hamarkada erdialdean, Ez Dok Amairu taldeko sortzaile izan zen Lete, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, JoxAnton Artze, Jose Angel Irigaray eta Lourdes Iriondorekin batera, besteak beste. Taldea desegin eta gero, ibilbide ederra osatu du bakarlari gisa eta baita idazle moduan ere.

Euskal Herriak eman duen poeta handienetakoa da Xabier Lete. Bereak dira, gainera, euskal kantagintza garai-kideko abesti esanguratsuenetakoa

batzuk. Hori gutxi balitz, bertsolaritza sustatzen ere, lan handia egindakoa da.


“Neure barruko egia”

Ostiral honetan, “Egunsentiaren esku izoztuak” poema liburu berria aurkeztura etorriko da Sutegira. “Ez dakit poema onak edo txarrak idatzi ditudan. Baina badakit neure barruko egia agertu dudala, egiatia izan naizela, eta hor ez dagoela betelanik, ez dagoela txorakeriarik. Horretaz ziur sentitzen naiz”, adierazi zuen Xabier Letek Berria egunkarian, urtarrilean eskainitako elkarrizketan.

Lan honekin irabazi berri du Espainiako Literatur Kritikarien Saria.

Gonbidapenak, Lizardin

Xabier Leteren saioa ostiral honetan izango da, iluntzeko 20:00etan Sutegin. Sarrera doan da, baina gonbidapenak aldeztu aurretik eskuratu behar dira Lizardi dendan.



XABIER LETEK JOXAN GOIKOETXEA MUSIKARIAREN LAGUNTZA IZANGO DU.

Xabier Leteren poema irakurketarekin amaituko da Jexux Artze Kultur Taldeak antolatu duen kultur zikloa.

Bide-egileak ahaztu gabe

Goaz antzerki taldearen emanaldiarekin abiatu zen Jexux Artze elkarteak antolatutako egitaraua. Kantu Taldearen saioak kaleko giroa suspertu zuen eta Oreka Tx taldearen kontzertuak, euskal kulturagintza garai-kidean aitzinda-

ri izandakoak goreseteko balio izan zuen. Saio amaieran, Mikel Laboa eta Jean Paul Harreguyren senideek oroigarri bana jaso zuten. Ez Dok Amairu taldeko sortzaileak izan ziren biak eta iaz zendu ziren.



OREKA TX TALDEKOAK “NÖMADAK TX” IKUSKIZUNA ESKAINI ZUTEN DIARDO KIROLDEGIAN.



SAIDAREN AMAIERAN, OROIGARRI BANA JASO ZUTEN MIKEL LABOA ETA JEAN PAUL HARREGUYREN SENIDEEK.

Lorpenak ospatzeko garaia

Usurbil KE eskubaloitaldeko neskek denboraldi bikaina osatu dute

Estatu mailako eskubaloiko jubenil nesken zortzi talde onenak lehiatu ziren pasa den astean Zarautzen. Eta onenen artean zeuden, Usurbilgo neskek ere. Zuten guztia emanez, aurrean aurkari indartsuak izan arren, gogotsu jardunean azken minutura arte. Partidarik ezin izan dute irabazi, baina noraino ailegatu diren ikusi ostean, haien aurkari onenek esandakoa hartu behar dute gogotan; meritu handia dutela alegia. Zorionak!

“Zaila bada, ez da ezinezkoa.... Uuuuohhhh ez gaitu inork geldituko!. Badago lortzea”. Zarautzeko kiroldegiko aretoan esekia zegoen pankarta bateko animo eta indarra eman asmoz idatzitako hitzak ziren horiek. Ziurrenik, etxe-koak, Zarautzeko jubenil mailako nesken eskubaloitaldeari babesa adierazteko. Baina baliagarriak izan zitezkeen baita pasa den maiatzaren 6tik 10era aipatu kiroldegian lehiatu ziren gainerako taldeentzat ere, usurbildarrentzat adibidez. Ez baita gutxiagorako eskubaloiko jubenil mailako nesken taldeak denboraldi honetan zehar jorratu duten bidea, ezta noraino iritsi diren ikustea ere; euren kategorian, estatu mailako zortzi talde onenen artean sailkatu dira eta.

Markagailua, gutxienekoa

Emaitzei begira, finalerdietarako txartela eskuratu ez arren, borrokalarien zerrenda egingo balitz, ziurrenik lehen postuan leudeke, aurrean ez zituzten eta edozein aurkari. “Edozein akats txikik, aurkarien kontraerasoa eta gola suposatzen zuen”, adierazi du taldeko prestatzaile Nerea Agudok. Ez ziren kirol hitzordu errazak herrikoentzat, are gehiago, urduri zeudela aintzakotzat hartuta. Are gehiago, eskubaloit jokalari-entzatzat egun korapilatsuak zirela kontuan hartuta. Ikasturteko azken txanpan baitaude, azken azterketak gainean dituzte.

Halere, azpimarratzekoa da, finalerdie-



GOGOR LAN EGIN DUTE DENBORALDI OSOAN. ASTEBURU HONETAN KOPAKO BI PARTIDA JOKATUKO DITUZTE, ELGOIBARREN ETA ZARAUTZEN.

tara ailegatzeko jokatu behar izan zituzten norgehiagoketan, une zailtan, aurkariak markagailuan nagusi izan arren ere, neskek erakutsi duten indarra. Ez diote haiek, euren aurkari indartsuenek baizik. “Azken partidatan, Porriñokoak etorri ziren gu txalotu eta agurtzera, aurkari duinak garela esanez, kristoren meritua dugula esanez. Amak halakorik esaten badizu arrazoa ez duela dirudi, baina kanpokoek esanda beste zerbait da. Orduan konturatu ginen, galtzea ez dagoela hain gaizki”, adierazi du Agudok.

KIROLTASUNA NAGUSI

“Txapelketan zehar giro ona izan da, kiroltasuna izan da nagusi”

Bost egunez iraun zuen txapelketan giro ona nagusitu zen, eta taldeen artean ere errespetu handia egon omen da. Azkenean, kiroltasuna nagusi beraz.

Bizitako esperientziarekin pozik dira. Eta zuten guztia emanda, orain lasaiago daudela esan behar. Zer ikasi eta zer ezagutua izan dute egunotan, eskubaloia

bizitzeko beste modu bat adibidez. “Gure jokalarientzat eskubaloia aisialdiko ekintza den artean, aurkari izan ditugun taldeek lan gisa hartzen dute eskubaloia, alderdi profesionalagotik”, dio Agudok. Maila handiko taldeak zeuden. Igaro den asteko txapelketa jokatu den herriko eskubaloit taldea horren lekuko. “Pentsa, guri beti irabazi izan digun Zarautz ere kanporatu zuten”, adierazi du jubenilen prestatzaileak.

Jende ugari animatzen

Usurbildik Zarautzera partidak ikustera joan etorrian ibili diren herritarrak eskertu nahi dituzte. Eta egindakoak egin eta esandakoak esan ostean, orain ospatzeko garaia heldu zaie. Bizi izan dutenaz jabetzeko oraindik goiz dela dioten arren, ez da eta gutxiagorako.

Kopa eta Granollers, hurrengo hitzorduak

Lasaitasun handiagoz jokatu dituzte uda aurretik gelditzen zaizkien norgehiagokak. Kopari dagozkion bi partidak asteburu honetan; ostiralean Elgoibarren, eta igandean Zarautzen. Datorren hilean, zenbait egunetarako Granollersera joango dira.

Herri Arteko Txapelketan, Azkoitiak egin zuen aurrera

Usurbilgo pilotariek lan txukuna osatu dute Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketan. Azkoitiaren aurkako norgehiagoka berdintzea lortu zuten, baina tanteoa kontuan hartuta, Azkoitiak egin du aurrera.

Azkoitiarrak 2-1 aurreratu ziren apirilaren 30ean, Azkoitian bertan jokaturako joaneko partidetan.

Itzulerako partidak, ordea, aurreko ostiralean jokatu ziren Usurbilen eta gure ordezkariak 2-1 nagusitu ziren. Kanporaketaren emaitza 3-3koa izan da baina tanteoarengatik, Azkoitia izan da aurrera egin duena, bi jardunaldien amaieran 29 tantoko aldea lortu zuelako.

Hainbat zozketa egin ziren ostiral gaueko partidetan. 915 zenbakiarekin



915 ZENBAKIDUNA, JUAN LUIS JUARISTI SARITUA (AZKOITIAKOA).

Juan Luis Juaristi (Azkoitiakoa) izan zen sari bat eraman zuena.

949 zenbakiarekin Antton Egileta izan zen beste saritua.

Santixabel txapelketa, azken zortzirenetan

Usurbilgo Pilota Txapelketan,



949 ZENBAKIDUNA, ANTTON EGILETA SARITUA.

Santxo-Lopetegi bikoteak 22-10 irabazi zuen Zaramagako taldearen aurka. Portu-Urruzola bikoteak, ordea, galdu egin zuen Orioren aurka; 22-17 azken emaitza.

Azken zortzirenak asteburu honetan hasiko dira, jubeniletan zein nagusietan.

Paleta Goma Txapelketa antolatu da

Maiatza bukaeran hasi eta Santixabeletan amaituko da paleta goma txapelketa. Izen emateko epea maiatzaren 22an amaituko da. Txapelketa 18 urtetik gorakoen zat antolatu da eta soilik usurbildarrek har dezakete parte.

Txapelketa maiatzaren bukaeran hasiko da eta sari ederrak banatuko dira amaieran, Santixabeletan jokaturako den finalean. Hauek dira bete behar diren baldintzak:

- 2 pilotarien izenak eman behar dira, bietako bat bakarrik izan daiteke Euskal Pilotan federatua. Izen ematea: 20 euro + 30 euroko fidantza.

- Partidak: igande arratsaldetan 18:00etatik aurrera eta izen-emate kopurua handia balitz maiatzaren 25eko bileran zehaztuko litzateke beste egun bat. Lehiaketa sistema, bikote kopuruaren arabera zehaztuko da.

- Izena Oiaro kiroldegian eman behar da. Bertan dagoen inprimakia bete beharko da.

- Harremanetarako 653 72 80 59 (Haritz).



MAIATZAREN 25EAN BILERA EGINGO DA, 20:00ETAN SUTEGIN.

- Usurbildarrek bakarrik parte hartu ahal izango dute.

- Txapelketaren nondik norakoak zehazteko maiatzaren 25ean bilera egingo da arratsaldeko 20:00etan Sutegi Kultur Etxean.

- Partiden egutegia hasieratik zehaztuta geratuko da eta ezingo da inolaz ere aldatu. Horretarako izango dira ordezkioak.

- Euria eginez gero Zubietara joateko aukera egongo litzateke.

- Emakumeen arteko txapelketa jokaturako da gutxiengo izen emate kopuru bat osatzen bada.

- Baldintza hauek betetzen ez dituen bikotea lehiaketatik kanpo geratuko da.

Bukatu da, Usurbil FT

Lehengo urteko egoera larriari laurre egin ondoren, 2008-09 denboraldi hau amaitzen doan heinean, datorren urteari begira jartzeko garaia iritsi da. Zein da Usurbil futbol taldearen egoera? Futbola edukiko ote dugu datorren urtean?

Futbol taldeko zuzendaritzaren erantzuna argia da. Gauden egoeran ezin diogu 2009-10 denboraldiari aurre egin. Orain arte egindako lanaren gainean norberak izango du bere iritzia. Egoera ezagutzen dugunok ordea, jende gehiagoren laguntza ezinbestekotzat jotzen dugu. Gauden egoeran, ekainaren 19an, denboraldiari amaiera emango diogu. Eta orain zer? Non daude futbolzaleak?

Zuzendaritzakoek denboraldi honetan lagundu gaituzten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Babesleetatik hasita, entrenatzaile, masajista, jokalaririk eta borondatez jardun duten guztiei!

Aurten futbolaz gozatzeko aukera izan dela uste dugu, kadete, nesken taldea eta 1. zein regional mailako taldeak aurrera atera direlarik. Eta orain zer?

Usurbil FT-ko zuzendaritza

Agenda !!**Maiatzak 15 ostirala**

- San Ixidro eguna. Ikus egitaraua, 5. orrialdean.

- "Egunsentiaren esku izoztuak", Xabier Leteren azken liburuko poemen irakurketa Joxan Goikoetxearen musikaz lagunduta. 20:00etan Sutegin.

Maiatzak 16 larunbata

Hitzaldia: "1620. Nafarroa Frantziarekin bat", 12:00etan Sutegin. Hizlaria, Jean Louis Davant.

Maiatzak 18 astelehena

Hitzaldia, "Las Karlistadas". 19:00etan Sutegin. Mikel Sorauren.

Maiatzak 24 igandea**XXVIII. Sagardo Eguna.**

11:30ean hasiera ekitaldia. 12:00etan, sagardo botatzaileen txapelketa. Bazkalondoan, txaranga. 18:00etan, erromeria Ostolaza eta Pujanarekin.

Musikaldi jaialdian arituko dira Zumarte Musika Eskolako trikitilariak



Zumarte Musika Eskolako Musikaldi jaialdian hartuko du parte larunbat honetan, Mungian, Musika Eskolen Jaialdian. Euskal Herriko 30 musika eskola eta 1.500 ikasle bilduko dira bertan: 6 gune ezberdin antolatu dira eta kalejirarako bi ibilbide

prestatu dituzte antolatzaileek.

Egun guztian musika izango da nagusi Mungian. Zumarte Musika Eskolatik Trikitixa Taldea joango da, goizean kalejira egingo dute eta eguerdian beste taldeekin bateraturik emanaldi nagusian ere parte hartuko dute.

Jende ugari presoen aldeko bazkarian

Peso bat, egunkari bat kanpainarekin lotutako bazkaria Askatasuna plazan egin zen azkenean. Bazkalostean, Agurtzane Solaberrietary omenaldia egin zioten.



Maiatzaren 16an, 77ko kinto bazkaria

Larunbat honetan, maiatzak 16, 1977an jaiotakoek bazkaria antolatu dute. Aginagako sagardotegian egingo da bazkaria eta menua sagardotegikoa izango da.

Dena den, kinto bazkari honetan parte hartzeko lehenik izena eman behar da. Txiriboga edo Irrati tabernetara jo behar da izena ematera, maiatzaren 14a baino lehen.

Sagardo botatzaileek, maiatzaren 20an bilera

Sagardo Eguneako antolatzaileak azken prestaketa lanetan murgilduta daude egun hauetan. Aurten izango diren berrikuntzak direla eta, sagardo botatzen aritzeko asmoa dutenei biltzeko deia egin zaie.

Bilerarako hitzordua ere zehaztu dute jada; maiatzaren 20an asteazkena elkartuko dira, iluntzeko 20:00etik aurrera Sutegiko auditorioan.

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

ETXEBIZITZA

- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414
- Usurbilen, bikote batek logela (etxe berria) alokatzen dio bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943 575 788 / 609901 734.
- Pisu bat daukat alokairuan eta pisukide baten bila nabil. Hilean 250 euro. 615 006 390.
- Santuanen etxebizitza bat daukagu salgai. 2 logela, sala, sukaldia eta komuna dauzka. 28 milioi negoziagarri. 619591849 / 626456448.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Pisua salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukaldia (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak eskeitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Santuanen auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukaldia, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berria eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldia, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldia, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Puegot 307a salgai. XS 2.0 HDI bersioa. 90 cv, 5 ate. 2002ko maiatzean matrikulatua, 149000 km ditu. Oso egoera onean dago. Korrea eta alternadore berriak ditu. Gris metalizatua, Parrot markako telefonorako esku- librearekin. 6000 euro negoziagarriak. 685725639.
- Peugeot 307-SW familiarra 2003 urtekoa eta beis kolorekoa. 637894997.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro

karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.

- "Yamaha especial 250" motorra salgai. Egoera onean, 700 euro. 615 006 390.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Garaje bat salgai Kale Nagusian, 200 m². Oso merke. 657 700 408.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Galtzaraginan (Dia ondoan) 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko; 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.

- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestatagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Agapurni txori bat galdu dugu maiatzaren 8an kaxkoan. Loro mota bat da eta gorputza grisa du, lepo eta buruak txuriak eta isatsa urdina eta grisa. Aurkitu baduzu, bueltatzea sarrituko da. 943370722.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228.
- Artzabal inguruan maleta txiki bat, kotzeko bi DVDrekin aurkitu dugu. Galdu duenak deitu 656774127 telefonora.
- Frantseseko klaseak ematen dira Usurbilen. Maila guztietakoak. Astelehen eta asteartetan arratsaldeko 20:30ean. Maiatzaren 4an hasiko gara. Informazio gehiago Laurok Liburudendan.
- Teckel txakurkumeak salgai, oso politak, standard tamaina, ile gogorrekoak. Tel: 636 39 32 37
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Malen!

Maiatzaren 13an 7. urtebetetza iritsi zaizu. Ondo ondo pasa eta muxu handi bat. Txokolate bero bat prestatu guretzat, bale?



Zorionak June!

Maiatzaren 17an 6 urte! Muxu potoloak senide eta lagunengandik partetik.



Zorionak Joritz!

Maiatzaren 15ean egingo dituzu 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat Uxue, aita eta amaren partez!



Zorionak Joritz!

Ostiralerako indarrak hartu, pastel asko jateko. Aintzane eta Aitziberren partez muxu potolo potolo potolo bat!



Zorionak Printzesa!

Maiatzaren 18an 8 urte egingo dituzu. Zorionak eta muxu potolo bat guraso eta Xubanen partez! Ondo ondo pasa!

HILDAKOAK

Saturnina Escudero Michelena, maiatzaren 7an hil zen 77 urterekin.



HILDAKOAK

Manuel Goenaga Ilaramendi, maiatzaren 5ean hil zen 94 urterekin.



Rafa

iturgindegia



- Kristaldegiko lanak
- Kristalezko mahaiak
- Segurtasun beirak
- Kristalezko luzeroak
- Klimatit

astelehenetik ostiralera: 10:30 - 13:30
 larunbatetan: 10:00 - 13:00

Bordaberri kalea 1, 1 behea • ☎ 943 36 80 04

www.behetik.com

Eskailerak igotzea... ez da oztopo!

-plataformak -igogailu bereziak -aulki bereziak...




b behetik

Añorga-Ixiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888



antenas
Telemar

325 egun falta dira!!!



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
 antenastelemar@terra.es



I. URRUZOLA

AROZTEGIA

**Konfiantzazko arotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera**

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea



Oria etorbidea 4, behea
 (Errekatxo jate txarearen ondoan) **LASARTE**
 Tel.: 943 371 200 • 610 413 131



“ASTE BUKAERAKO MENUA”

- Bakailu entsalada epela
- Arraina eta ziazerba krepak
aukeratu:
 - Arkumea
 - Txerrikumea
 - Txekor masail
 - Eguneko arraina
 - Etxeko postrea
 - Edaria, ogia eta kafea

30€
+bez



MENUA
Eguneroko menua.
OSTIRAL GAUA BARNE
MENUA 16€
edaria, ogia eta
kafea barne

“IGANDERO PUZGARRIAK”

Maiatzak 1etik aurrera, igandero 15:30–20:30tara
Monitorekin



Olarrondo Jatetxea
5 zenbakia. USURBIL
erreserbak: ☎ 943 360 376
www.olarrondo.com

